



## Añana-Gesaltzako harana

**Hasiera:** Añana-Gesaltzako eliza

**Iraupena:** 3 ordu.

**Sarbidea:** Bilbotik autoz etorrira, A-68 autopista hartu behar da Subillako irteeraraino. Bertatik, A-2622 errepideak Añana Gesaltza arte eramango gaitu. Gasteiztik bagatoz, 102 Nazionaletik Langraiz Okarantz jo beharko dugu bertatik Añanara heltzeko.

Añananako gatzagak erromatarren garaitik izan dira ustiatuak. Gaur egun Monumentu Historiko Nazionala da gune hau, eta proposatzen den ibilbidearen bidez gatzagez gain Arreoko hezegune garrantzitsua ere deskubritu daiteke.

Añanako elizaren atzealdetik egurrezko zubi bat gurutzatuko dugu. Jarraitu beharreko xenda gatzagak ixten dituen hesiaren paraleloan doana izango da. Bideak hesiari jarraituko dio Santa Engraziako iturrira heldu arte. Iturria ibarraren sakonean dago eta gatzagek bertan dute euren sorburua. Beranduago pista batekin bat egingo dugu eta aurrera jarraitu behar da errepide batera heldu arte. Errepidea behin gurutzatuta, artadi batetik lakurantz zuzentzen den bidezidorretik abiatuko gara. Marka urdinei jarraituz Arreoko lakuaren gainaldera helduko gara. Hezegune honek biodibertsitate bikaina hartzen du barne eta bertan, uretako hegaztiak eta hegazti migrazaileak nabarmentzen dira.

Ibilbidearekin jarraitzeko nekazal landetara jaitsiko gara labirinto txiki batetik. Puntu honetan, lakua inguratzen duen nekazal pistari ekin behar diogu baselizarantz doan eskualde errepidera heltzeko.

Ermitaren inguruetan gurutze-bidea topatuko dugu eta ezkerretarantz eginez ibilitako bidetik atzera bueltatuko gara, San Juan de Acreko komenturantz doan gurutze-bideraino. Komenturako bidean gatzagen ikuspegi bikaina izango dugu, eta herrira heltzeko errepideari jarraitzea besterik ez zaigu geratuko. F